



ARESOko UDALA

OINARRIAK

HEZIKETARAKO ETA HEZKUNTZARAKO LAGUNTZAK IKASLEENTZAKO DEIALDIA

1. Oinarria.- Xedea.

Deialdi honen helburua da araubide bat ezartzea heziketa eta hezkuntzarako laguntzak emateko.

2. Oinarria.- Aurrekontua.

Deialdi honetarako bideratu den aurrekontua gehienez ere 1.500 eurokoa da, 2023ko aurrekontuko "Hezkuntzarako laguntzak" izeneko partidaren kargura.

3. Oinarria.- Onuradunak.

Honako beharkizunak betetzen dituzten pertsonak izanen dira dirulaguntza honen onuradunak:

a) 16 urte bitarteko gazte eta haurrak izatea.

- 2022. urteko ekitaldian 16 urte bete dituztenak onuradun izanen dira; hau da, 2006an jaiotakoak.
- 2022. urteko ekitaldian 16 urte izanik ere, 17 urte betetzen dituzten gazteak, hau da 2005ean jaiotakoak ez dira diruz lagunduko.

b) Areson erroldatuak, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin.

4. Oinarria.- Laguntzaren iraunaldia.

Diruz lagunduko dira 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31a bitarte burututako heziketan edo hezkuntzan egindako gastuak.

5. Oinarria.- Diruz lagungarriak diren gastuak.

5.1. Diruz lagungarriak izanen dira: Heziketa edo hezkuntzan egindako gastutzat joko dira, eskolaratze arautik at gelditzen diren ekintzak. Adibidez:

- Musika.
- Hizkuntzak.
- Kirol jarduera ez lehiakorrak.

5.2. Ez dira diruz lagunduko:

- a) Eskolaratze arautuko gabeziak bete edo indartzera bideratuko ekintzak.
- b) Kirol Mankomunitateak antolatutako jarduerak, Aresoko Udala mankomunitateko kide den heinean.

5.3. Aurkeztu litezkeen zalantzaragarrak izan litezkeen jardueren inguruan Alkatetzak izanen du hori ebazteko eskumena.



ARESOko UDALA

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Onuradunek egiaztatzen duten gastuaren % 50 lagunduko da; gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko.

7. Oinarria.- Eskaerak eta dokumentazioa aurkeztea

7.1 Hilabete bateko epea dago eskaerak aurkezteko, deialdia onartu eta argitaratzen denetik hasita. Aurkezteko azken eguna **2023ko ekainaren 19a**.

Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentu guztiak, onuradunak aukeran, bide hauetako batetik aurkeztuko dira:

- a) Aurrez aurre Aresoko Udaleko Idazkaritzan.
- b) Telematikoki: Aresoko Udaleko Erregistro Elektronikoko bitartez. (<http://areso.eus/>)

Eskabidean adierazi beharko da jakinarazpenak baliabide telematikoen bidez jaso nahi direla.

7.2. Agiri hauek aurkeztuko dira:

- a) Eskaera, I. eranskinetako eskaera orokorraren ereduaren arabera (eskuragarri Idazkaritzan eta web orrian).
- b) Jarduerari dagokion faktura edota ordainagiri zein antzeko agiriak.

8. Oinarria.- Laguntzak emateko prozedura.

Udalak eskaerak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamena igorriko dio organo eskuduna den Alkatezari, dagokion Alkate Ebazpen bitartez baldintza guztiak betetzen dituzten onuradunei dirulaguntza esleituz.

9. Oinarria.- Datu pertsonalen babesa.

(DBEO) 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau jakinarazten zaie hautagaiei:

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Aresoko Udalarena da.

Tratamenduaren helburua langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da.

Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.c). artikulua (tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko behar den tratamendua) eta DBEOren 6.1.b). artikulua (interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua). bat betetzeko beharrezko tratamendua.



ARESOko UDALA

Datuak gorde egingo dira biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduari ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Artxiboak eta Dokumentuak arautzen dituen apirilaren 4ko 12/2007. Foru Legea eta Nafarroako toki-erakundeetako dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).

Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua), erabakiaren argitalpena barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikularekin bat eginez).

Titularrek informazioa eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan, informazio gehiago jasotzen duten tokietan, edo datuen babeserako delegatuarekin harremanetan jarritz.

Halaber, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazioa aurkezteko, baldin eta uste badute tratamendua ez datorrela bat indarreko araudiarekin

10. Oinarria.- Errekurtsoak/Helegiteak.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetako bat aurkeztu ahal izango da, hautaz:

- a) Berraztertze errekurtsoa egintza egin duen organoari berari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten edo argitaratzen den egunetik hilabeteko epean.